

Iñigo Bilbao | **ABANTO**

**B**ehar handia eta izerdi asko behar izaten da basamortu izan ziran lurretan loreak barriro hazteko. Antzekoa da Meatzaldea bereuskalduntzeko bertako euskaldun eta euskaltzaleek egiten daben ahalegina. Orain bost urte Axola taldea osatu eben, eta geroztik euskerea bultzateko hainbat eta hainbat ekimen antolatu ditue, besteak beste, egunotan, Sanfuentes auzoan ospatu daben Euskal Jaia.

Ekitaldiak barikuan hasi ziran, Jose Mari Karrere ipuin kontalariaren abenturak, zorigaiztoak eta enparauak entzuteko herriko gazteak batu ziran. Saioaren ostean, San Martin tabernan alkartu ziran, ondo afaldu eta Anjel Mari Peñaigarikano eta Ainhoa Agirrezaldegiren bertsoak gozatzeko. 30 lagunetik gora batu ziran, euskerearen oasi horretan berbeagaz olgetan egiteko.

Atzo, barriz, umeentzako txandea izan zan. *Bizkaia* bertan egon zan, eguerdian, Kiki, Moko, Koko eta Flax pailazoen saioa hasiera zihorean. Lehenago kalejireia egin eben auzoko kaleetan, txistuaren doinuak etxerik etxe eroateko.

Pailazoen jaia plazan egitekoa zan arren, eguraldiaren mehatxuak eskola barrura bultzatu zituan umeak, euren gurasoak, pailazoak eta baita antolatzaileak be. Urrutian txisturen soina entzuten zan, oraindino. Baina orduan Harrigorria dantza taldekoak ziran musikea jotzen egozanak, beranduago egin behar eben dantza agerraldirako prestetan egozan eta.

Hogei ume, edo, bildu ziran eskola barruan pailazoekin. Kopuru polita, antolatzaileentzat, kontutan hartuta Sanfuentes auzo txikia dana, eta Meatzaldearen muga linguistikoak zorrotzak dirala euskerearentzat. Gurasoak be hor egozan. Aita eta ama gehienek ez eben askorik aditzen, baina horrek ez zituen askorik arduratzen. Seme-alabengaitik egozan hor, eta umeak pozik ikusi ezker, eurak be nasai-nasai egozan.

Etorkizuna zelakoa izan leitekenez ikusi zitekean areto horretan: gurasoekin berbea erdaraz egiten eben umetxoek, euskeraz erantzuten eutsien Mokok edo Flaxek egindako itaunei.



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

**ABANTOKO UMEAK.** Axola taldeak herriko neska-mutikoei eskaini eutsen atzo Euskal Jaien programea.

## Euskerearen oasia

**SANFUENTES AUZOKO JAIK.** Axola taldeak antolatuta, egunotan dozenaka herritar bildu dira erdara nagusi dan Meatzaldeko Abanto herrian euskeraz bizi eta gozatzeko.

biltza euskerea ikasten Abanto euskaltegian.

Axola taldeak bost urte bete dituan arren, orain hiru hasi ziran auzorik auzo horrelako euskal jaiak antolatzen Gallartan, Sanfuentesen eta Laskarretan (ofiziala ez dan arren, hori da eta bertako euskaldunek Carretas auzoa aitatzerakoan erabiltzen daben berbea).

Axolakoek euren aitorren dabe euskerearen egoera «nahikoa kaskarra» dana herrian, baina apurka-apurka gauzak hobetzen doazela ganeratzten dabe. Ahaleginik handiena herritarrek egin behar izan dabe, umeak euskerazko ereduaren matrikuletan dituen gurasoek, eta euren burua euskalduntzeko ahalegina egin dabenek, udal agintarien aldetik ezer gitxi espero dabe eta, bertako euskaltzaleek.

«Udalaren Euskera Batzordea osatzea lortu dogu, eta egunotako jaia antolatzeko diru laguntasuna be emon deuskue, baina emotera behartuta egon diralako, neurri handi baten», kexu dira Axolako kideak, eta nabari da euren erantzunetan. Izan be, Udalak euskerearen aurrean daukan jarrerea «apala» dala uste dabe, «hotza».

Euren egoera gatxa dan arren, Axolakoek ez dabe umorearek galtzen, eta pailazoen saiora sartu aurretik aurrera egiteko gogo nahikoa badaukiela aitortu eutsien *Bizkaia*-ri.

Barrura sartzeko beldurrez egon ziranak be, pozik jardun eben hortik gitxira aurpegia dana kolorez margoztutako gizonen txantxak entzuten.

Abanton ume horreen esku egongo da euskerea. Horixe pentsetan dabe, behinaz, Axola taldekoek, eta umei begira antolatzen ditue urtean zehar egiten dituen ekitaldi gehienak. Ez danak, jakina, aitatu lez gero eta gehiago dira eta, euren burua euskaldundu daben herritarrak.

Abanton, ehun herritarretik hogei besterik ez dabe euskerea aditzen, eta inguruko udalerrietan gertatzen dan lez, ia danak euskaldunbarriak dira. AEKren euskaltegiko irakasleek urtetan egin dituen ahalginak nabarmenak dirala aitortzen eben Axolako kideek. Baldintza horreetan, gaur egun be, ehun herritarretik gora da-

### AHALEGINA

**Ahaleginik handiena herritarrek egin behar izan dabe, Udalaren aldetik ezer gitxi espero dabe eta**

**DeMa**  
Empresa Garapena  
Desarrollo Empresarial



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Lehen eta Tratatuburua Batia

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Empleo y  
Formación



## AUTONOMOAK, ADI! ZABALZAZU ZURE PRODUKTUEN KARTERA

DEMAk, Formazio Gelaren bitartez, ondoko ikastaroa egiteko aukera eskaintzen dizu:

**IBILGAILUAK APARKA LEKUETAKO URRADURA  
ETA TALKEN AURKA BABESTEKO SISTEMA** saldu eta instalatzeko prestakuntza ikastaroa.

Halaber, proiektu horretan langile autonomo moduan aritzeko aukera emango dizugu, honako alde hauetan: Bilbo, Durango, Gernika, Basauri, Barakaldo eta Getxo.

**Eskaerak egiteko epea: martxoaren 10etik 20era (biak barnean)**

**DeMa**

Barakaldo Ekartegia C/ Fandera 1 - 48901 Barakaldo Tel. 94 418 90 55 - FAX 944 379 436 E-MAIL dema@demabiz.com

<http://www.demabiz.com>